

2018. URTEAN BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALEI EPE LUZERAKO MAILEGUAK EMATEKO PROZEDURAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN ENTZUNALDIAREN ETA INFORMAZIO PUBLIKOAREN IZAPIDEAREN EMAITZAK.

MEMORIA SOBRE LOS RESULTADOS DEL TRAMITE DE AUDIENCIA E INFORMACION PUBLICA DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL POR EL QUE SE APRUEBAN LAS BASES REGULADORAS DEL PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE PRÉSTAMOS A LARGO PLAZO A LOS AYUNTAMIENTOS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA DURANTE EL AÑO 2018.

Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura arautzen duen 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko, urtarrilaren 12an argitaratu zen, izapidean dauden prozesuen atalean, Bizkaiko Foru Aldundiaren webean, 2018. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei epe luzerako maileguak emateko prozeduraren oinarri arautzaileak onartzeko foru dekretuaren proiektuaren aurrerapena, eta hala, hasiera eman zitzaion foru-dekretu horren entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideari.

En cumplimiento de lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia de 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, con fecha 12 de enero se publicó en el apartado de procesos de tramitación de la web de la Diputación Foral de Bizkaia, dando así inicio al trámite de audiencia e información pública, el avance del proyecto de Decreto Foral por el que se aprueban las bases reguladoras del procedimiento de concesión de préstamos a largo plazo a los ayuntamientos del territorio histórico de Bizkaia durante el año 2018.

Goian deskribatutako proposamenari buruz herritarrek egoki deritzeten iradokizun eta ekarpenak idatziz aurkezteko 15 eguneko epea amaituta, jaso diren proposamenei buruzko txostena egin behar da.

Una vez transcurridos los 15 días preceptivos para que la ciudadanía presente por escrito las sugerencias o aportaciones que entienda conveniente sobre la propuesta normativa antes descrita procede elaborar la presente memoria relativa a las propuestas recibidas.

Horri dagokionez, jasotako datuen artean honako hauek nabarmentzen dira: Ez da iradokizunik ezta ekarpenik ere jaso kontsulta horretan.

En este sentido los datos más destacables recogidos son los siguientes: No se ha certificado sugerencia o aportación alguna en esta consulta.

Hori dela eta, jaso diren erantzunetan ez dagoenez daturik, ondorioztatzen da ez dagoela eragozpenik foru arauaren proiektua izapidetzeko eta ez dela erregistratu foru dekretua idazteko kontuan hartu beharreko ohar edo proposamenik. Beraz, egokitzat jotzen da, izapidetzen jarraitzea.

Por ello, ante la ausencia de datos aportados en las respuestas recibidas, se puede concluir que no se han recibido objeciones a la procedencia de la tramitación del proyecto de Decreto Foral ni se han registrado propuestas u observaciones que deban ser valoradas para la redacción del Decreto. En consecuencia se estima oportuno continuar con la tramitación.



Bilbon, 2018ko otsailaren 1ean.

En Bilbao, a 1 de febrero de 2018.

Udal Azterlanerako eta Ekonomi Laguntzarako Zerbitzu burua

La jefa de Servicio de Estudios Municipales y Asistencia Económica a entes locales